

## 24 FIBROMIALGIAREN ETA NEKE KRONIKOAREN SINDROMEAREN MUNDU EGUNEKO 24. MANIFESTUA

**Fibromialgiaren eta Neke Kronikoaren Sindromearen Mundu Eguna** da gaur. Hortaz, beste behin, aho batez **ospatu** nahi ditugu hainbeste urtean erdietsi ditugun lorpenak, jarrera eta ekintza solidarioak **eskertu**, bai eta eskubideak **aldarrikatu** ere, egunero-egunero mina eta nekea eragiten diguten **gaitz iraunkor eta anker** hauek guztiz normaldu daitezten.

Halaber, **batasunak indartu egiten gaituela** dioen lema gogora ekarri nahi dugu, eta elkartasun-sareen garrantzia **nabarmendu**. Izan ere, gaixoen, senideen, erakundeen, federazioen eta fundazioen arteko sareak eratzen aritu gara 2003an **lehen manifestu bateratua** argitaratu genuenetik.

Batasun horri esker lortu dugu manifestu honen ardatzak zehaztea, gure bizipen pertsonalak eta gu ordezkatzen gaituzten erakundeek jasotako esperientziak oinarri hartuta. Hala, agerian utzi dugu **lehenetsuzkoak diren zenbait behar** artatzen ez zaizkigula, **guztioi eragiten diguten gabezia** batzuk badaudela, eta **lurraldeen artean badagoela desberdintasunik**.

Izan ere, gure osasun zein gizarte-segurantza sistema publikoak gehiegitan egiten du huts lurraldeen arteko **ekitate- eta berdintasun-irizpideetan**. **Egituren** diseinuak, **protokoloen** aplikazioak eta **baliabideen** esleipenak ere gehiegitan egoten dira baldintzaturik egituren, kulturaren edo erakundeen esparruko joera jakinen ondorioz. Aipatutako joera horiek, bada, desberdintasunak eragin ditzakete sistemarako sarbidean, arreta profesionalean eta lortutako emaitzen eraginkortasunean.

Horrenbestez, ezinbestekoa da lurralde guztietan **egiturazko eredu** bat egotea; **diziplina anitzeko unitatez** osatutako eredu bat izan behar du horrek, lan-talde profesionalak nahiz arreta osoa emateko baliabideak dituena. Halaber, unitateak **eraiki** behar dira halakorik ez daukaten autonomia erkidegoetan, eta dagoeneko badituztenetan, aldiz, **beharrezkoa da horiek ikerketa** bultzatuz sendotu eta finkatzea, **prebentzioan**, diagnostikoan eta tratamenduetan aurrera egiteko.

**Lehen mailako arretak eta arreta espezializatuak** kalitatezkoak izan behar dute. Bien arteko harremana areagotu behar da, eta prestakuntza eta baliabideak dauzkaten profesionalak behar dira gu artatzeko, betiere gaixoarenganako errespetuz.

**Psikologia- eta gizarte-terapiak** ezinbestekoak zaizkigu gure gaitzei aurre egiteko, aldaketa handiak eragiten baitzizkigute bizitzaren hainbat arlotan, hala nola egunerokoan, familian, lanean zein bizitza sozialean.

Legegileei, enpresariei, sindikatuari eta enpresa batzordeei eskatzen diegu **lanera egokitzeko baldintzak** sortzeko, ordutegi malguen edo atsedendaldien bidez, besteak beste. Bestela, lan-merkatutik kanporatzeko arriskua dugu.

Orobat, ez dugu iruzur egin digutela eta are ikusezinagoak garela sentitu nahi. Horretarako, bada, **oso ondo arrazoitutako ebazpenak** eskatzen ditugu desgaitasun- edota ezintasun-eskaerak ukatzen dizkigutenean, espezialistek egindako txostenak aurkeztuta ere askotan ematen baitigute ezezkoa.

Gure elkarteak **osasun aktibotzat** hartu behar direla uste dugu, bai eta osasun eta gizarte arloko profesionalen kolaboratzailetzat ere, bizitza osasungarriko ohiturak eta jarduerak sustatzeko.

**Informazio-kanpainak eta gizarte sentsibilizatzekoak** behar ditugu oraindik, baina paradigma-aldaketarako parametroak kontuan hartuko dituztenak, hala deuseztatuko baitira hainbat aurreiritzi eta joera, hala nola generozkoak. Deuseztatzeak dira, halaber, gaitz susmagarriekiko loturak edo zenbait aurreiritzi; adibidez, gaixotasunok lanerako gaitasuna kaltetzen dutela edota laguntzak jasotzeko modua direla.

Gaixotasun bat eduki arren, guk pertsona **baikorrak eta borrokalaria** izaten jarraitzen dugu, **itxaropentsuak eta esker onekoak**. Zentzu horretan, osasun-profesionalen, adituen, ikerlarien eta erakundeen laguntza ere aitortu nahi dugu, beren erantzukizun-esparruetatik begirunez eta profesionaltasun osoz artatu gaituztelako.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, era berean, **elkarteen** bidez eta urteetan zehar, irribarre egiten, besarkatzen, gure sentimenduak eta nahiak azaltzen eta horiek gauzatzea posible zela **sinisten** lagundu diguten **pertsonai**.

Jakin badakigu gure **hausnarketak eta ekarpenak** ez direla alferrikakoak edo funtsik gabekoak. Izan ere, hainbeste eremu eta lurraldetako hainbeste **gaixoren** pertzepzioek eta **bizipenek** bat egiten dutela ikusita, argi dago zerbait huts egiten ari dela gure antolaketa politiko eta sozialean.

**2026ko maiatzaren 12<sup>a</sup>**

Fibromialgiaren eta Neke Kronikoaren Sindromearen  
Mundu Eguna



EMAN ESKUA

